

2.EKINNOVA - MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezero nagusia Ecoembes izango da. Ecoembes irabazi asmorik gabeko erakunde bat da ingurumena zaintzen dauana birziklapenaren bidez eta ekodiseinuen bidez Espainian. Bere helburu nagusia plastikozko ontziak, latak eta briks-ak eta kartoizko eta paperezko ontziak bigarren bizitza bat eukitea da. Horregaitik, prest egongo legoke gure proiektuagaitik ordaintzera euren lana errazten daualako eta sentsibilizazio tresna erabilgarria izan daitekelako. Hau da, gure proiektuaren bidez birziklapena sustatzen dogunez, Ecoembes-entzat errezagoa izango da euren helburua gazteen artean zabaltzea. Erabiltzaileak 12 urtetik gorako gazteak dira beraien egunerokotasunean mugikor eta tablet erabiltzaileak diranak.

Ecoembes gain, ikastetxeak gure bezeroak izango dira. Gure proiektua eskoletan aurkezteko asmoa daukagunez, gazteria birziklatzera bultzatuko dogu. Gainera, txangoak eta irteerak antolatuko doguzanez, leku aproposena informazio hori jasotzeko, eskolak dira. Horretaz gain, hizketaldi informatiboak eskainiko deutseguz ikastoletako ume eta gazteei irteeretara joan baino lehen. Hizketaldi honeekin lortu nahi doguna da gazteak aurretiaz jakitea zer egin behar daben irteeretan eta zelan erabili behar daben gure aplikazioa.